

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### BARRUNDIAKO UDALA

#### **Landa eta hiri ondasun higiezin gaineko zerga ordaindu behar dutenen 2019ko erroldak jendaurrean jartzea**

Landa eta hiri ondasun higiezin gaineko zergari dagozkion 2019ko erroldak egin direnez gero, eta Ondasun Higiezin gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauaren 21.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorrira, jendaurrean jartzen dira, interesdunek egoki deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten. Horretarako hamabost egun baliodun izango dituzte iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Interesdunek udaletxeko idazkaritzan dituzte eskueran agiriak, jendea hartzeko orduetan.

Ozaetan, 2019ko apirilaren 15ean

*Alkatea*

*AFRO OLABE MARTINEZ DE ALBENIZ*